

BESTELAKO XEDAPENAK

SPRI-ENPRESEN GARAPENERAKO EUSKAL AGENTZIA

1565

EBAZPENA, 2025eko martxoaren 24koa, SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentziako zuzendari nagusiarena, 2025erako «Zibersegurtasuneko Gaitasun Digital Profesionalak» laguntza-programaren oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen dituen, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan eta Europar Batasuneko NextGenerationEU funtsek finantzatuta.

SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziak, Eusko Jaurlaritzako Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren mendeko zuzenbide pribatuko erakunde publikoak, Euskal Autonomia Erkidegoan industria eta enpresa arloko jarduera bultzatzera bideratutako jardunbideak bideratzeko eta lehiakortasuneko bektore gisa honako hauen arteko trantsizioak Euskadiko enpresetan txertatzen laguntzeko ardura du: teknologia-digitala, energia-ingurumena eta demografia-gizartea. Horretarako, enpresen jarduera ekintzailean inbertsioa, berrikuntza, nazioartekotzea eta jarduera sustatzea bultzatzen ditu.

Ildo horretatik, Euskadi 2025 Eraldaketa Digitalerako Estrategia bultzatzera bideratutako zenbait ekintza garatu ditu SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziak. Ekintza horien artean, aipatzekoak dira Euskadiko eraldaketa digitala bultzatzera bideratutako laguntza-programa anitzak.

Dagoeneko abian dauden beste ekimen batzuen osagarri gisa, «Zibersegurtasuneko Gaitasun Digital Profesionalak» («Programa») izeneko programa hau jarriko da abian. Enpresen lehiakortasuna hobetzea da programaren helburua, Ikanos teknologiaren bidez pertsonen gaitasun digitalak bultzatuta. Horretarako, Ikanos metodologia ezarriko da edozein tamainatako eta edozein jarduera ekonomikotako enpresei zuzendutako berariazko aholkularitza-zerbitzu baten bidez.

Gaitasun Digital Profesionalen alorrari lotutako «Euskadiko Eraldaketa Digitaleko Estrategia 2025» delakoaren jarduera-ildoak garatzeko, beharrezkoa da Zibersegurtasuneko gaitasun digitalak sustatzea. Besteak beste, eremu hauek hartzen dituzte:

Ingeniaritza soziala.

Iruzurrezko mezu elektronikoak: erabiltzaileei mezu elektroniko kaltegarrien bidez iruzur egiteko ingeniaritza soziala erabilita egindako erasoen eraginkortasuna nabarmen ari da handitzen, eta horrek segurtasun korporatiboaren paradigma aldatu du. Egun, perimetroko firewallak eta Interneten eraginpeko zerbitzuen babesa ez dira kontraneurri nahikoak erakunde bat kanpoko erasoetatik babesteko. Erasotzaileek badakite giza alderdiaz baliatzea dela erakunde batek ezarritako segurtasun-irtenbide teknikoak saihesteko metodori eraginkorra. Hori horrela, beharrezkoa da phishing, spoofing teknikak eta beste metodo batzuk darabiltzaten mezuak hautemateko gaitasuna hobetzea.

Gailuak eta informazio pertsonala babestea.

Gailu elektronikoaren babeserako zibersegurtasuna: gure gailuak arriskuan ez jartzeko WIFI publikoetara ez konektatzea, fitxategirik ez deskargatzea zalantza webguneetatik, Sare Pribatu Birtualak (VPN) erabiltzea, Birus eta Ransomware aurreko babesa, nabigatzailearen ezarpenaren arriskuak ezagutzea eta gailu mugikorrek blokeatzea.

Datu pertsonalen eta pribatutasunaren babesa. Sarean datu pertsonalak edo profesionalak argitaratzeak arriskuan jar dezake gure segurtasuna zein lan egiten dugun enpresarena. Pertsonak

eta enpresak zaurgarri egiten ez dituzten datuak argitaratzen ikasi behar dugu, baita gure datuen backupa egiten ere, eta datuen zifraketak nola funtzionatzen duen ezagutu behar dugu.

Pasahitzen kudeaketa segurua.

Gailu elektronikoen babeserako zibersegurtasuna: pasahitz sendoak eta pasahitzen kudeatzailerak erabiltzea, zenbait faktoretako egiaztatzea ezagutu eta erabiltzea, etab.

Interneten segurtasunez nabigatzea.

Gaitasun digitalak segurtasunez nabigatzeko: Interneten informazioa bilatzeko segurtasun-irizpideak eta internet erabiltzeak hartu beharreko neurri orokorrak sendotzea, besteak beste, cookiei lotutako arriskuak ezagutu eta hautematea, SSL segurtasun-egiaztagiriek nola funtzionatzen duten, etab.

Eduki faltsua identifikatzea. Albiste eta informazio faltsua hautematen ikasi behar da, beharrezkoa da iturriak identifikatzea eta haien fidagarritasuna balioztatzea.

Segurtasuneko gertaerak.

Lehentasunezko jarduketak segurtasun-gertakarien eta zaurgarritasunen aurrean. Arriskuak prebenitzen eta gure enpresaren zibersegurtasuna arriskuan dagoela uste dugun egoeretan erantzuten lagunduko diguten gaitasun digitalak garatzean datza. Enpresaren informazio-sistemaren osotasuna arriskuan egon daitekeela hautematen dugun egoeretan erantzuten ikasi behar dugu.

Dirulaguntzen araubidea Erregulatzeko 2023ko abenduaren 21eko 20/2023 Legeak (DEAL) 7.2.a) artikuluan eskatzen du lege horrek ezartzen duen dirulaguntzen kudeaketa eta esleipena zenbait printzipioren arabera egiteko, besteak beste, publizitate-printzipioaren arabera. Era berean, DEALen 8.3 artikulua ezartzen du dirulaguntza edo diruz lagundutako programa mota bakoitzaren oinarri arautzaileak argitaratu behar direla Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

Hori guztia dela eta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– 2025erako «Zibersegurtasuneko Gaitasun Digital Profesionalak» laguntza-programaren oinarri arautzaileak eta deialdia onartzea, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan eta Europar Batasuneko NextGenerationEU funtsek finantzatuta. Programa horren edukia ebazpen honen eranskin gisa argitaratu da.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian osorik argitaratzea.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa jar dakioko SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziaren Zuzendaritza Nagusiari, hilabeteko epean, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa administrazioarekiko epaitegietan, bi hilabeteko epean, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du eragina.

Bilbao, 2025eko martxoaren 24a.

SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentziako zuzendari nagusia,
JON ANSOLEAGA UGARTE.



ERANSKINA

2025ERA KO ZIBERSEGURTASUN EKO GAITASUN DIGITAL PROFESIONALAK
PROGRAMAREN OINARRI ARAUTZAILEAK, SUSPERTZE, ERALDAKETA ETA ERRESILIENTZIA
PLANAREN ESPARRUAN ETA EUROPAR BATASUN EKO NEXTGENERATIONEU FUNTSEK
FINANTZATUTA

SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziak (SPRI), Eusko Jaurlaritzako Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren menpeko zuzenbide pribatuko erakunde publikoak, hainbat ekintza gauzatzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) industria, lehiakortasuna, enpresen arteko lankidetzak, ikerketa eta, besteak beste, enpresen garapena sustatzeko.

Euskadi 2025 Eraldaketa Digitalerako Estrategian (EEDA2025) definitutako jardute-politikekin bat datorren tresna bat da «Zibersegurtasuneko Gaitasun Digital Profesionalak» programa. Gailuetan zein aplikazioetan egindako aurrerapen teknologikoek; komunikazio-sare finkeoen eta mugikorren hedapenak; industrian, zerbitzuetan eta ia sektore guztietan lortutako eraginkortasunak, eta sare sozialen eta lineako komunikabideen hedapenak gizarte digital unibertsal berria sortu dute. Gizarte digital horrek aukera ugari eskaintzen ditu lanerako, aisialdirako, entretenitzeko, kontsumitzeko, garapen pertsonalerako eta ikasteko.

Gizarte digital horretako kidea izateko nahikoa da konektatutako gailu bat eta aplikazioak erabiltzeko gai izatea, baina, guztiz aprobetxatzeko, une bakoitzean behar diren ezagutza, trebetasunak eta talentua garatu behar dira. Gizartearen eta erakundearen heldutasun digitala lortzeko, kultura eta gaitasun digitalak behar dira. Eta, haiek hobetzeko, bizitzan zeharreko ikaskuntza behar da.

Europako Batzordearen 2018ko maiatzaren 22ko Gomendioak, bizitzan zehar ikasteko gaitasun gakoak buruzkoak, argi islatzen du errealtate hori, baita politika publikoak bultzatu beharra ere. Gomendio horrek arrazoitzen duenez, pertsonak ulertu behar dute teknologia digitalak lagungarriak izan daitezkeela komunikaziorako, sormenerako eta berrikuntzarako; eta teknologia digitalek dituzten aukeren, muga, eraginaren eta arriskuen berri izan behar dute.

Erakunde guztien egungo eta etorkizuneko hazkundea bultzatzera bideratuta daude teknologia digitalak, baita funtzio, gaitasun multzo eta laneko profil berrien eskaria handitzera ere. Automatizazioaren gorakadaren aurrean, enpresek haien lan-indarra berregituratu behar dute. Horretarako, profil tradizionalenak gutxitu eta horien ordean profil teknologikoagoak txertatu behar dituzte, edo azpikontratazioa areagotu behar dute lan espezifikoetarako.

Enpresa-ikuspegiaren oinarrituta, gomendatzen da neurtzea saileko eta erakunde osoko helburu digitalak eskuratzeko langile bakoitzak zer bide urratu behar duen. Beharrezkoa da profesionalen maila digitala ezagutu eta kudeatzea, konpetentzietan oinarritutako prestakuntza egokia eta erabilgarria diseinatzeko. Azterketak barne hartu behar ditu ezagutza teknikoak, tresnen erabilera eta ingurune digitalera egokitzeko behar diren trebetasunak, baita ingurune digitaletako informazioaren kudeaketa, elkarlana, lankidetzarako eta sarean lan egiteko teknologia erabiltzen duten taldeen kudeaketa, ekonomia digitalean murgilduta dauden bezeroen arreta edo zibersegurtasuna ere. Soft konpetentzia horietako batzuek, gaitasun digitalekin lotuta, agerian uzten dute pertsonen gaitasunak gero eta gehiago direla zeharkakoak, multifuntzionalak eta malguak.

Ildo horretan, azken urteetan zehar gaitasun digitalei buruzko Ikanos www.ikanos.eus proiektua landu da. Eusko Jaurlaritzaren egitasmoa da Ikanos, gaitasun digitalak gizarte osoan ezagutzera emateko, aintzat hartzeko, eta horien aurrerapena eta egiaztatzea errazteko. Ikanos ereduak hobekuntza-prozesu bat marrazten du, pertsonalizatutako bide-orri batekin, errealtatetik gertu dauden





helburuetan eta tresna oso praktikoetan oinarritutako pausoak emateko, Europako Batzordearen DigComp kontzeptu-esparruaren oinarriaren gainean (Digital Competences Framework – DigComp 2.2 – <https://epale.ec.europa.eu/es/content/marco-europeo-de-competencias-digitales-digcomp>).

2025. urterako Zibersegurtasuneko Gaitasun Digital Profesionalak programa tresna bat da, eta Europar Batasunak - NextGenerationEU finantzaturako Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko (SEEP) 7. Inbertsioko 15. Osagarriaren baitan Espezializazio Teknologikoko Lurralde Sareen Programak (RETECH) finantzatzen du. RETECH programaren esparruan sinatutako hitzarmenek 15.17 Zibersegurtasuna osagaia lortzen laguntzen dute: Herritarren, ETE-en eta profesionalen zibersegurtasunaren gaitasunak indartzea; sektoreko ekosistema bultzatzea. Zehazki, RETECH zibersegurtasunaren industria nazionala eta dagozkion ekintzak bultzatzeko programa martxan jartzeko lanaren barruan kokatzen da, eta, hartara, industria horren alderdi nagusiak landuko dira: zibersegurtasunaren industria nazionala sustatzea, sektore horretako enpresak sortu, hazi eta garatzeko; zibersegurtasunean espezializatutako pertsona talentudunak trebatzea eta talentua garatzea; eta nazioartekotzeko ekintzak sustatzea zibersegurtasunaren alorrean.

Bereziki, RETECH programarekin lotuta dauden hitzarmenak lagungarriak dira CID 245 eta CID 453 mugarriak erdiesteko (aurrerantzean, CID 245). Horretarako, aurrekontua RETECH Ciber proiektuen kudeatzailea den INCIBERen (Zibersegurtasunaren Institutu Nazionala) ekarpenaren mende egongo da. Gainera, CID 248a lortzeko ere lagungarriak dira, proiektua amaitu eta jardueren exekuzioa bukatzea justifikatzen denean.

Zerbitzu hori Digitalizazioko eta adimen artifizialeko estatu-idazkaritzaren lankidetzak-hitzarmenaren esparruan dago, RETECH deialdiaren barruan (espezializazio teknologikoko lurralde-sareak). Besteak beste, SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziak eta INCIBEk (SME Zibersegurtasunaren Espainiako Institutu Nazionala MP SA) formalizatu zuten 2023ko azaroan.

Oinarri arautzaile hauen babespean emandako dirulaguntzak Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzeko 2021eko otsailaren 12ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2021/241 Araudiak ezarritako Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren bitartez finantzaturako dira. Europako funtsekin finantza daitezkeen dirulaguntza horien tramitazioari eta esleipenari Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana exekutatzekeo premiazko neurriak onartzen dituen 2020ko abenduaren 30eko 36/2020 Errege Dekretuan aurreikusitakoa aplikatuko zaio, aplikagarria den gainerako araudia alde batera utzi gabe.

Illo horretan, SPRIk hitzematen du suspertze- eta erresilientzia-mekanismoari buruzko Europako eta estatuko betebeharrak beteko dituela, eta, bereziki, SEEPeko kudeaketa-sistema konfiguratzen duen irailaren 29ko HPF/1030/2021 Agindua; estatuko, autonomia-erkidegoetako eta tokiko entitateek eman beharreko informazioaren prozedura eta formatua finkatzen duen irailaren 29ko HFP/1031/2021 Agindua, mugarri eta helburuen erdieste-maila jarraitzeko; eta SEEPa exekutatzen den prozeduretan interes-gatazkak sortzeko arriskuaren azterketa sistematikoari buruzko urtarrilaren 24ko HFP/55/2023 Agindua.

Azkenik, adierazi behar da programa Eusko Jaurlaritzako Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburuaren 2025-2028 aldirako 2025eko urtarrilaren 24ko Aginduaren bidez onartutako erakundearen Dirulaguntzen Plan Estrategikoan jasota dagoela. Planeko helburu hau betetzeko ekarpena egiten du: zibersegurtasunean talentua sustatzen laguntzea, zibersegurtasuneko enpresetako langileen gaitasun digitalen maila diagnostikatuz.



1. artikulua.– Xedea.

Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera duten enpresetan (pertsona fisiko edo juridikoak) «Zibersegurtasuneko Gaitasun Digital Profesionalen» Ikanos sistema ezartzeko proiektuak bultzatzera bideratutako espezietan emandako laguntzak emateko baldintzak zehaztea da oinarri hauen xedea, enpresaren lehiakortasuna eta pertsonen garapen profesionala hobetzeko helburuz.

Espezietan emandako programa honetako laguntza enpresa onuradunari aholkularitza espezializatu eta indibidualizatu ematea izango da, diruz lagundutako proiektua gauzatzeko. Laguntza hori «Zibersegurtasuneko Gaitasun Digital Profesionalen» Ikanos sistema ezartzea izango da.

C15.I7 inbertsioko jarduketa bat da, Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko (SEEP) 15. Osagarriaren baitan. CID 245 eta CID 453 (CID 245en jarraipena) mugarriak lortzen laguntzen du, eta INCIBERen ekarpenari dagokion aurrekontua konprometitzen du. Gainera, CID 248a lortzeko ere lagungarriak dira, proiektua amaitu eta hitzarmen bakoitzean jasotako jardueren exekuzioaren bukaera justifikatzen denean.

Jarduketa horren helburuak betetzeko ekarpena egingo du, suspertze- eta erresilientzia-mekanismoa eta Europako eta estatuko Suspertze Plana arautzen dituen araudiaren arabera.

Oinarri arautzaile hauen babespean emandako dirulaguntzak Berreskurapen eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzeko 2021eko otsailaren 12ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2021/241 Araudiak ezarritako Berreskurapen eta Erresilientzia Mekanismoaren bitartez finantzatu dira. Europako funtsekin finantza daitezkeen dirulaguntza horien tramitazioari eta esleipenari Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana exekutatzekeo premiazko neurriak onartzen dituen 2020ko abenduaren 30eko 36/2020 Errege Dekretuan aurreikusitakoa aplikatuko zaio, aplikagarria den gainerako araudia alde batera utzi gabe.

2. artikulua.– Laguntzen izaera.

1.– Laguntza horiek ondoz ondoko esleipenaren arabera emango dira. Ondorioz, banaka eta modu ordenatuan ebatziko dira, oinarri hauetan zehaztutako dokumentazio guztiarekin eskaera osatu den unea kontuan hartuta.

2.– Programa hau aplikatzearen ondorioz emandako laguntzek garrantzi txikiagoko edo de minimis laguntza izaera dute. Ondorioz, 2023ko abenduaren 13an Europako Batzordeak onartutako (EB) 2831/2023 Erregelamenduak xedatutakoaren mende egongo dira (EBAO L, 2023ko abenduaren 15ekoa, «2831/2023 Erregelamendua»).

3.– Programa honen bidez ematen diren laguntzak itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak izango dira.

4.– Programa honen barruan emandako dirulaguntzek ez dute lotura zuzenik esportatutako kopuruekin, banaketa sare bat sortu eta ustiatzearekin, edo esportazio jarduerarekin lotutako beste gastu arrunt batzuekin.

3. artikulua.– Baliabide ekonomikoak.

1.– Dirulaguntza-programa honen helburura bideratutako baliabide ekonomikoak 2.000.000 eurokoak dira, eta SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziaren aurrekontuetan horretarako ezarri diren aurrekontu-zuzkiduretatik etorriko dira. SPRIren aurrekontuak 2025erako Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan sartuta daude, eta, azken batean, Europar Batasunak finantzatutako NextGenerationEU Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planean.





Adierazitako hornikuntza ekonomikoa Europako Suspertze Tresnatik eratorritako baliabide finantzarioen bidez finantzatzen da («NextGenerationEU»), Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzeko 2021eko otsailaren 12ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2021/241 Araudiak ezarritako Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren bitartez.

2.– Funtsak mugatuak direnez, programa honen bitartez lortu nahi da ahalik eta denbora tarte txikiena igarotzea laguntza eskatzen denetik ematen den arte, eta horrenbestez, espediente osatua dagoenean eta era ordenatuan egingo da esleipena. Programaren guztizko zenbatekoa gainditzen duten laguntzei ezezkoa emango zaie, ebazpen baten bidez. Laguntzak behar bezala jasotako laguntzen ondorengo ondoko esleipenaren arabera emango dira.

3.– Deialdi honen xede diren laguntzak osatzen dituzten aholkularitza-zerbitzu espezializatu eta indibidualizatuen balio zenbatetsia 2.000.000 eurokoa da. Balio hori SPRIk eskuratzearen kostuaren baliokidea da, Zibersegurtasuneko Gaitasun Digital Profesionalen sistema bat ezartzeko zerbitzuak emateko lortutako esparru-akordioaren arabera.

Jasotako eskabideen arabera, aurrekontuaren gehieneko zenbatekoa 2.000.000 gehigarrirekin handitzeko aukera aurreikusten da (hau da, 4.000.000 eurora arte gehienez), DEALen 23.2 artikuluan aurreikusitakoaren babesean.

Gehieneko zenbatekoa handitzeko ebazpena EHAAr argitaratu beharko da. Edonola ere, argitaratze horrek ezin ekarriko du eskabide berriak aurkezteko epea irekitzea edo ebazteko epe berri baten hasiera.

4.– Ondoz ondo emandako dirulaguntzen balio metatua artikuluko 3. paragrafoan adierazitako kopurura iristen bada, SPRIk zuzendari nagusiak, dagokion ebazpenaren bidez, egoera horren berri emango du, eta eskaerak egiteko epea itxiko da, baldin eta irekita jarraitzen badu. Ebazpena EHAAr argitaratuko da.

5.– Programarako funtsak agortzen badira, programari amaiera emango zaio, eta horren berri emango du SPRIren zuzendari nagusiak sozietatearen web orrian (www.spri.eus) eta EHAAr argitaratuko den ebazpen baten bidez.

6.– Behin aurrekontu-kreditua bukatuta, ezingo da beste dirulaguntzarik eman eta, hori dela eta, aurkeztu diren, baina ebazteke dauden eskaerak ezetsi egingo dira.

4. artikulua.– Baldintzak eta definizioak.

Programa honen helburuetarako, definizio hauek ezarri dira:

1.– Aholkulari espezializatua: SPRIk bultzatutako lizitazio-prozesuan esleitutako programaren enpresa onuradunean zibersegurtasun arloan espezifikoa den Ikanos metodologia aplikatzeko beharrezko aholkularitza- eta laguntza-zerbitzuak emateaz arduratuko den kanpoko aholkularitza-erakundea, -enpresa edo -profesionala.

2.– Amaierako txostena: zibersegurtasun arloan espezifikoa den Ikanos metodologiaren arabera aholkularitza-enpresa espezializatuak egindako eta enpresa onuradunak baliozkotutako deskargu-dokumentua.

3.– Ikanos metodologia: gaitasun digitalak gizarte osoan ezagutzera emateko, aintzat hartzeko, eta horien aurrerapena eta egiaztapena errazteko metodologia da. Ikanos ereduak hobekuntza-prozesu bat marrazten du, pertsonalizatutako bide-orri batekin, errealtatetik gertu dauden helburuetan eta tresna





oso praktikoetan oinarritutako pausoak emateko, Europako Batzordearen DigComp kontzeptu-esparruaren oinarriaren gainean (www.ikanos.eus). Zehazki, xehetasun handiagoz landuko dira Zibersegurtasuneko gaitasunak: DIGCOMP gaitasun digitalen Europako esparruko 4. arloko (Segurtasuna) 4.1 Gailuen babesa eta 4.2 Datu pertsonalen eta eremuaren pribatutasunaren babesa.

5. artikulua.– Erakunde onuradunak eta izaera hori lortzeko eskakizunak.

1.– Programa honetan jasotako laguntzak eskuratu ahal izango dituzte EAEn enpresa-jarduerak egiten dituzten pertsona fisiko eta juridikoek, eskaera eginda, 6. artikuluan deskribatutako diruz lagun daitezkeen jarduerak egiteko proiektuak aurkezten badituzte.

Hori guztia, baldin eta:

a) Euskal Autonomia Erkidegoan enpresa-jarduerako zentro bat badute. Hain zuzen ere, aurkeztutako proiektuak zentro horretan izan beharko du inpaktua eta bertan egin beharko da diruz laguntzekoa den jarduera.

b) Euskadiko Ekonomia Jardueren Gaineko Zergaren dagokion epigrafean alta emanda badaude.

2.– Ezingo dituzte deialdi honetan aurkezten diren dirulaguntzak jaso:

a) Sektore publikoren batekoak diren edo sektore publikoaren parte diren erakundeek, aplikagarriak diren sailkapen instituzionalaren araudien arabera.

b) DEAlen 13. artikuluan edo 2003ko azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorren (DLO) 13.2 artikuluan aurreikusten den egoeraren batean badaude, aplikagarria den heinean.

Zehazki, aintzat hartuko da eskatzaileek zerga-betebeharrak Gizarte Segurantzako betebeharrak eta dirulaguntzen itzulketen betebeharrak betetzen dituztela, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuak 2023ko otsailaren 13an emandako aginduak ezarritako kasuetan. Hala, dirulaguntzen itzulketen betebeharren ordainketan eguneratuta dagoela aintzat hartuko da zorrak zatikatuta edo atzeratuta eta bermatuta daudenean edo itzultzeko dagokion ebazpenaren inpugnazioa bertan behera uztea adostu bada.

c) Europako Batzordeak laguntza bat legez kanpokoa dela edo barne-merkatuarekin bateraezina dela erabaki ondoren, laguntzak errekuiperatzeko agindu baten mende daudenek.

d) LGTBIfobia egin, bultzatu edo sustatzen dutenek, bihurketa-terapiak sustatu edo egitea barne, trans pertsonen berdintasun erreal eta eragingarrirako eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko otsailaren 28ko 4/2023 Legearen arabera.

e) Aurreko hiru urteetan de minimis laguntza gisa 300.000 euro jaso dutenek.

f) 30.000 eurotik gorako dirulaguntzen eta enpresen kasuan soilik, merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurka egiteko neurriak ezartzen dituen 2004ko abenduaren 29ko 3/2004 Legeak aurreikusten dituen ordainketa-epeak betetzen ez dituztenek.

g) 2023/2831 Erregelamendutik kanpo utzitako sektorearen batean jarduerak egitea, 1.1 artikuluen arabera.

3.– Laguntza-eskaera aurkezten den unetik hasi eta emandako dirulaguntza likidatu arte bete beharko dira aurreko ataletan laguntzen onuradun izateko aipatutako eskakizunak.





4.– Aurreko paragrafoetan aurreikusitako alderdiak modu honetan egiaztatuko dira:

a) SPRIK ofizioz egiaztatuko du honako eskakizunak betetzen direla:

– Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera-zentro bat dutela, zeinetan proiektuak eragina izango duen.

– Euskadiko Ekonomia Jardueren gaineko Zergan alta emanda daudela.

– Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituztela.

Dena den, eskatzaileak uko egin diezaioke ofizioz egiaztatzeari. Hala bada, kasu bakoitzean eskumena duen organoaren administrazio-ziurtagiri positiboak aurkeztu beharko ditu.

b) Gainerako baldintzak 9. artikuluko dokumentuak eta informazioa aurkeztuz edo oinarri hauen I. eranskinean jasota dagoen normalizatutako ereduaren arabera erantzukizunpeko adierazpenaren bidez egiaztatuko dira. Bigarren kasu horretan, eskatzaileak betebeharra izango du erantzukizunpeko adierazpen horretan adierazitako dokumentazioa egiaztatzeko SPRIK hala eskatzen dionean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69. artikuluan eta DEALen 13.9 artikuluan aurreikusitako eskakizunak betez. Erantzukizunpeko adierazpenaren bidez egiaztatutako baldintzen egiazkotasuna ikuskapen bidez edo dokumentazioa eskatuz egiaztatu ahal izango da hala badagokio.

c) enpresetan eta 30.000 eurotik gorako dirulaguntzen kasuan soilik, merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurka egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legeak aurreikusten dituen ordainketa-epeak bete direla ziurtatuko da, Erantzukizunpeko Adierazpenaren bidez, auditorearen ziurtagiriaren bidez edo adostutako prozeduren txostenaren bidez.

6.– Diruz lagundu daitezkeen jarduerak eta gauzatzeko epea.

1.– Enpresa onuradunak hauetarako jasotako zerbitzuak diruz lagundu ahal izango dira: enpresa onuradunaren langileen artean gehienez ere 27 lagunen gaitasun digitalak diagnostikatzeko eta ebaluatzeko proiektuak, enpresan identifikatutako profil profesionaletan oinarrituta, eta Ikanos ereduaren arabera.

Ez da diruz lagunduko lizitatutako esparru akordioaren bidez SPRIk erositako zerbitzuaz bestelako beste jarduerarik.

Zibersegurtasuneko Gaitasun Digital Profesionalak proiektua ezin izango da hasi emate-ebazpena argitaratu aurretik.

Deialdi honen baitan, enpresa bakoitzak dirulaguntzaren eskaera bakarra aurkeztu ahal izango du eta Zibersegurtasuneko Gaitasun Digital Profesionalen proiektu bakar bat egin ahal izango du.

Zibersegurtasuneko Gaitasun Digitalak ezartzeko proiektuek baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Zibersegurtasuneko gaitasun digitalei dagokienez, Europako DIGCOMP ereduaren oinarrituta garatutako Gaitasun Digitalen IKANOS metodologia erabiltzea.

b) Ikanos metodologia erabiliz Euskal Autonomia Erkidegoko enpresetan «Zibersegurtasuneko Gaitasun Digital Profesionalen» sistema bat ezartzeko zerbitzuak emateko helburuz SPRIk bultzatutako Esparru Akordioaren erakunde esleipendun batek egitea, programaren onuradunaren aukeraketan oinarrituta. Programaren enpresa onuradunak ezin izango du SPRIk bultzatutako esparru-akordioaren



erakunde esleipendunik hautatu lana egiteko, baldin eta erakunde horrekin zuzeneko edo zeharkako lotura badu, akzioen edo partaidetzen bidez.

c) Proiektuak gauzatzeko gehieneko epea 6 hilabetekoa izango da, ebazpen-egunetik zenbatzen hasita. Epe hori beste 6 hilabete luza daiteke, baina edonola ere, 2026ko ekainaren 30a baino lehen.

Inola ere ez da diruz lagunduko Europar Batasuneko kide diren beste herrialde batzuetara edo hirugarren herrialdeetara esportatzea; eta, ondorioz, Programa honen testuinguruan diruz lagundutako dirulaguntzek ezingo dute zuzenean lotuta egon esportatutako kantitateekin, banaketa-sare bat martxan jarri eta ustiatzearekin, edo esportazio-jarduerarekin lotutako beste ohiko gastu batzuekin. Programa honen barruan emandako dirulaguntzek ezingo dute baldintzatu inportatutako produktuen ordeztako produktuak erabiltzea.

2.– DEALen 31.1 artikuluan eta DLOren 29. artikuluan eta 2006ko uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 68. artikuluan, (horrek onartzen du DLOren araudia «DAO») ezarritakoaren arabera, onuradun batek azpikontratatu edo kontratatatu egiten du, baldin eta hirugarren batzuekin diruz lagundu nahi den jarduera osorik edo partzialki egitea hitzartzen badu. Kontzeptu horretatik kanpo da onuradunak diruz lagundutako jarduera bere kabuz gauzatzeko egin beharreko gastuen kontratazioa. Hori horrela, azpikontratazioa edo hirugarrenen kontratazioa diruz lagundutako jardueraren zenbatekoaren % 100era iritsi ahal izango da, eta diruz lagundutako jardueren azpikontrataziorako edo hirugarren kontrataziorako aplikagarri izango dira aipatutako artikuluetan jasotako gainerako aurreikuspenak.

Horretarako, 31. artikuluan eta bere garapenerako araudian xedatutakoa aplikatuko da. Organo kontzesio-emaileak balizko azpikontratatisten identifikazio-datuak gorde beharko ditu funtsen azken hartzaile gisa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 Araudiaren 22.2.d) artikuluan ezarritakoaren arabera.

Nolanahi ere, erakunde onuradunak azpikontratatzaileen berri eman beharko dio dirulaguntzaren organo kontzesio-emaileari idatziz, eta bere kontratek eta/edo azpikontratek interes-gatazkarik ez dutela adierazi beharko du.

Oro har, MRRk egiturazko aldaketa bat dakarten eta errepikakorrak ez diren gastuak soilik finantzatzeko ditu. Gastu horiek inpaktu iraunkorra izan beharko dute erresilientzia ekonomiko eta sozialean, jasangarritasunean, digitalizazioan, epe luzeko lehiakortasunean eta enpleguan. Oinarri hauei dagozkien dirulaguntzek 2020ko abenduaren 30eko 36/2020 Errege Dekretuaren 37. artikuluekin bat datozen jarduketak soilik finantzatzeko dituzte, SEEPen esparru arautzailearen arabera hautagarriak diren jarduketak finantzatu ahal izateko. Ezingo dira diruz lagundu Europar Batasunak klimaren eta ingurumenaren arloan dituen arauak eta lehentasunak, eta «kalte adierazgarriak ez eragiteko» printzipioa («do no significant harm – DNSH» printzipioa) erabat errespetatzen ez dituzten proiektuak, 2020ko ekainaren 18ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2020/852 Zuzentarauaren 17. artikuluen arabera. Erakunde onuradunek bermatuko dute hori betetzea.

7. artikulua.– Laguntzen modalitatea eta zenbatekoa.

Laguntzak gauzatzeko dirulaguntza gisa egituratuko dira (minimisen mende).

Honela kalkulatu da gauzatzeko laguntzaren zenbatekoa: 300 euro (6. artikuluan deskribatutako Gaitasun Digital Profesionalen diagnostiko bakoitza egiteko zenbatekoa) bider enpresa eskatzailearen langile kopurua (enpresak eskaeran proposatutako langileak, diruz lagunduko den proiektua gauzatzen parte hartuko dutenak).





Espezieko laguntzaren gehieneko zenbatekoa 8.100 eurokoa izango da, zergak aintzat hartu gabe. Hau da, enpresa onuraduneko 27 langilek parte har dezakete gehienez diruz lagundutako proiektuan, Gaitasun Digital Profesionalen diagnostikoa osatuz, 6. artikuluan deskribatutako jarduketetan oinarrituta.

8. artikulua.– Laguntzak metatzea, haien bateragarritasuna eta mugak.

1.– Deialdi honen xede diren laguntzak bateraezinak izango dira beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batzuek helburu bererako eman ditzaketen beste batzuekin.

Oinarri hauetan araututako dirulaguntza gauzatzeko eskuragarri dauden funtsek errespetatu egingo dute etiketatze klimatikotik (ez du barne hartzen esku hartzeko eremua) eta etiketatze digitaletik (009bis – Digitalizazioarekin lotutako I+G jardueretan inbertitzea –bikaintasuneko ikerketa-zentroak, ikerketa industrialak, garapen esperimentalak, bideragarritasun-azterlanak, sektore digitalarekin lotutako I+G jardueretarako aktibo finkoak edo ukiezinak eskuratzea barne–) eratorritako betebeharrak betetzea, dirulaguntza programari esleitutako ehuneko 0 eta ehuneko 100eko portzentajearekin, hurrenez hurren, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduak ezarritako Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planean eta Berreskurapen eta Erresilientzia Mekanismoan aurreikusitakoaren arabera.

Inola ere ez dira diruz lagunduko Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planean ezarritako etiketatze berdea eta digitala betetzen ez duten proiektuak.

2.– Programa hau aplikatuz emandako laguntzek garrantzi gutxiagoko laguntzen edo de minimis izaera dute.

3.– Erakunde onuradun batek jaso dezakeen de minimis guztien kopurua ezingo da 300.000 eurotik gorakoa izan hiru urteko edozein alditan zehar.

4.– De minimis laguntzak ez zaizkio metatuko Estatuko inongo dirulaguntzari, diruz lagun daitezkeen gastu horiei dagokienez, baldin eta metatze horrek gaindituko balu laguntzaren intentsitatea edo dagokion gehieneko laguntzaren kopurua. Gehieneko kopuru hori kasu bakoitzaren ezaugarri zehatzen arabera dago ezarrita, kategorien araberrako salbuespen-araudi baten edo Batzordeak harturiko erabaki baten bitartez.

5.– Aurrez aipatutako muga horiek edo programa honek zehazten dituen beste batzuk gaindituz gero, soberako kantitatea murriztu egingo da programaren arabera emandako zenbatekotik.

6.– De minimis laguntzak emandakotzat hartuko dira enpresari laguntza jasotzeko eskubide legala ematen zaion unetik hasita.

9. artikulua.– Dirulaguntzaren eskaera eta informazioa ematea.

1.– Eskaerak, errekerimenduak, jakinarazpenak, zuzenketak eta oinarri hauen ondoriozko gainerako kudeaketak bitarteko elektronikoak erabiliz egingo dira SPRIren webguneaz baliaturik.

2.– Aurreikusitako dirulaguntzak jasotzeko baldintzak betetzen dituzten erakundeek dirulaguntzaren eskaera bete beharko dute SPRIren webgunean dagoen aplikazio informatikoaren bitartez. Ondoz ondoko pantailak ditu aplikazioak eta eskatzaileek eskatuko zaien informazioa ikusi ahal izango dute horietan, oinarri hauen arabera.



3.– Dirulaguntzaren eskaera hori izenpe elektroniko aurreratuaren bidez (ziurtagiri elektroniko errekonozitu batekin) sinatu beharko du erakundea ordezkatzeko nahikoa ahalorde duen pertsona batek.

4.– Erakunde onuradunaren eta bere legezko ordezkariaren identifikazio-datuak jaso beharko dira laguntza-eskaeran.

5.– SPRIk ofizioz egiaztatuko du ea zerga-betebehar guztiak eta Gizarte Segurantzako betebeharrak betetzen diren, baita enpresa Jarduera Ekonomikoen Zergan alta emanda dagoen ere. Nolanahi ere, dirulaguntzaren eskaera egitean aukera dago eskatzaileak uko egiteko SPRIk ofiziozko egiaztapen hori egin dezan. Kasu horretan, dagokion egiaztagiria aurkeztu beharko ditu.

6.– Laguntza-eskaerarekin batera agiri eta informazio hauek aurkeztu behar dira:

a) Oinarri Arautzaile hauen eranskinean ageri den normalizatutako ereduaren edukiaren arabera egindako erantzukizuneko adierazpena.

b) Alderdi hauei buruzko informazioa:

– Aurreko hiru urtetan jasotako de minimis laguntzen zerrenda, bertan adierazi beharko da laguntza hori noiz eman zen, zer erakundek eman zuen, zein programaren baitan eta laguntzaren zenbatekoa.

– Proiektu hori bera gauzatzeko beste erakunde publiko zein pribatu batzuei eskatutako edo/eta haiek emandako dirulaguntzak, bertan adieraziz laguntza hori noiz eskatu zen, eta, hala badagokio, zein organismok eman zuen, zein programaren baitan eta laguntzaren zenbatekoa.

c) Legezko ordezkariaren notario-ahalordea. Ez da aurkeztu beharko laguntza-eskaera eskatzailearen ordezkariak sinatu badu indarrean dagoen pertsona juridikoaren ordezkariaren ziurtagiriaren bidez, agintaritza ziurtatzaile aitortu batek emana.

d) Identifikazio Fiskaleko Txartela/eskatzailearen NAN. Ez da aurkeztu beharko laguntza-eskaera eskatzailearen ordezkariak sinatu badu indarrean dagoen pertsona juridikoaren ordezkariaren ziurtagiriaren bidez, agintaritza egiaztatzaile aitortu batek emana, IFZ zenbakiari eta eskatzailearen izen sozialari buruzko datua egiaztatu ahal izateko. Langile autonomo baten kasuan, nahikoa izango da laguntza-eskaera sinatzea, indarrean dagoen pertsona fisikoaren ziurtagiriaren bidez. Ziurtagiri hori agintaritza egiaztatzaile aitortu batek emango du, eta, horren bidez, eskatzailearen NAN zenbakiari eta izen-abizenei buruzko datua egiaztatu ahal izango da.

e) Enpresa Espezializatuak aukeratutako aholkularitza-enpresak egindako laneko plana; puntu hauei buruzko informazio zehatza izan behar du:

– Proiektua egingo duten langileen kopurua.

– Proiektua gauzatzeko egutegia.

– Lortu nahi diren helburuen memoria.

7.– Programaren onuradun gisa azaltzen den enpresari dagokiona bakarrik onartuko da abisuak jakinarazteko posta elektronikoko kontu moduan.

8.– Eskatzaileek bermatuta izango dute beren hizkuntza –euskara edo gaztelania– ahoz nahiz idatziz erabiltzeko eskubidea, Programa honen ondorioz SPRIrekin izango dituzten harreman guztietan.





Laguntza-eskaera, aurkeztu beharreko dokumentazioarekin batera, hautatutako hizkuntza ofizialean (euskaraz edo gaztelaniaz) aurkez daiteke. Halaber, dirulaguntzen eskaeratik eratorritako jardueretan, eta prozedura osoan, erakunde eskatzaileak hautatutako hizkuntza erabiliko da, Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko Oinarrizko 10/1982 Legean ezarritakoaren arabera.

9.– Dirulaguntzen finantzaketa Europar Batasuneko Berreskurapen eta Erresilientzia Mekanisмотik datorrenez, eskaerarekin batera dokumentazio hau aurkeztu beharko da eta dokumentazio orokorrari gehitu beharko zaio:

a) Onuradunaren zein, hala badagokio, azpikontratisten benetako titulartasuna identifikatzea. Identifikazio hori 2015eko maiatzaren 20ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2015/849 Zuzentarauaren 3. artikuluen 6. puntuan definitzen den moduan egin beharko da, 2021eko otsailaren 12ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2021/241 Zuzentarauaren 22ko artikuluari dagokionez 2021eko irailaren 29ko HFP/1031/2021 Aginduaren 10. artikulua ezartzen duen moduan.

2023ko urtarrilaren 24ko HFP/55/2023 Aginduaren 4. artikuluan aipatzen den egiaztapenaren arabera, eskatzailearen baten titulartasun errealean daturik ez baldin badago, datu horiek 5 egun balioduneko epean eman beharko zaizkio eskatzen dituen administrazioari. Ezarritako epean informazio hori entregatzen ez bada, prozeduratik kanpo geratzeko arrazoia izango da.

b) Titulartasun errealean erantzukizunpeko adierazpena, 2015eko maiatzaren 20ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2015/849 Zuzentarauaren 3. artikuluko 6. puntuan adierazitakoaren arabera, VI. eranskinaren terminoetan.

c) 2021eko irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 8. artikuluen arabera jardura ekonomikoak garatzen dituzten erakunde onuradunek Zerga Administrazioari Espainiako Agentziaren Enpresari, profesionalen eta atxikitzaileen eroldan edo Aldundiko Zerga Administrazioaren erolda baliokidean izena emanda daudela egiaztatzea beharko dute, eta dirulaguntza eskatzeko epean jardura ekonomikoa behar bezala garatzen dela erakutsi beharko dute.

d) «Kalte esanguratsurik ez eragiteko» («do no significant harm – DNSH» printzipioa) printzipiora egokitze erantzukizunpeko adierazpena egitea, 2021eko otsailaren 12ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2021/241 Araudiaren 2. artikuluen 6) apartatuan ezartzen den moduan; eta etiketa klimatikoaren (% 0) eta digitalaren (% 100) kasuan, 2021eko apirilaren 27ko Ministroen Kontseiluak onartutako Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren aurreikusitakoa betez, IV. eranskinean jasotako formularioaren arabera. Eskatzaileak behar bezala bete beharko du eranskin hori.

e) Interes Gatazkarik Ez Dagoela Adieraztea, VIII. eranskinaren terminoetan.

f) Iruzuraren aurkako politika ezagutzen dela eta horri atxikitzen zaiola adierazteko Erantzukizunpeko Adierazpena, V. eranskinaren terminoetan.

g) Finantzaketa bikoitzik ez dagoela adierazten duen Erantzukizunpeko Adierazpena, VII. eranskinaren terminoetan.

h) Funtsen erabilerari buruzko (EB) 2021/241 Araudiaren 22. artikuluan inplikaturako Administrazio Publikoen artean datuak lagatzea onartzeko adierazpena, indarrean dagoen araudiaren arabera, II. eranskineko terminoetan.



j) BEEP-NextGenerationEU ezarritako zeharkako printzipioak betetzeko konpromisoari buruzko eta kudeaketa-xedearen arloari eragin diezaioketenei buruzko erantzukizunpeko adierazpena, III. eranskinaren terminoetan.

10. artikulua.– Laguntza-eskaerak aurkezteko epea.

Oinarri hauek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean hasiko da laguntza-eskaerak aurkezteko epea, eta 2025eko abenduaren 15ean bukatuko da. Dena den, eskatzaileei zuzendutako arreta teknikoa 2025eko abenduaren 15eko 15:00etan amaituko da (Espainiako penintsulako ordua).

11. artikulua.– Esleipenaren prozedura.

1.– Laguntza-eskaerak ebazteko, ondoz ondoko emakida-prozedura erabiliko da. Aurkeztu diren ordenaren arabera aztertu eta izapidetuko dira eskaerak, eta behar bezala formalizatuta eta osatuta gelditzen diren neurrian eta hurrenkeran ebatziko dira. Eskaerak akatsen bat badu, eta akats hori zuzendu egin behar bada, zuzenketa egin deneko data hartuko da eskaera aurkeztearen datatzat.

2.– Organo kudeatzaileak kudeatuko ditu laguntza-eskaerak, espediente osorik dagoen unetik aurrera.

3.– Ebazpena SPRIko Zuzendaritza Nagusiak egingo du, ondoz ondoko emakidaren erregimenean, eta erakunde eskatzaileari jakinaraziko zaio gehienez ere 10 egun balioduneko epean, igortzen denetik zenbatzen hasita. Baiespen- edo ezespen-ebazpen hori SPRIko zuzendari nagusiak emango du, eta eskatzaileari jakinaraziko zaio; halaber, haren aurka berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahalko da SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziaren zuzendari nagusiaren aurrean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako epe eta moduan. Bestela, zuzenean, Bilboko administrazioarekiko auzietako epaitegien aurrean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da. Nolanahi ere, ebazpenak zehaztuko du eskatutako dirulaguntza eman den edo, hala badagokio, ukatu den. Lehenengo kasuan, gutxienez, pertsona edo erakunde onuradunaren izena edo izen soziala, diruz lagundutako proiektua, proiektuan parte hartuko duten pertsonak eta emandako laguntzaren balioa adieraziko dira. Ukatuz gero, pertsona edo erakunde eskatzailearen izena jasoko da, bai eta ukatzeko arrazoiak ere.

4.– Ebazteko epea. Eskaeren gaineko ebazpena espresuki emateko eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da eskaera osatuta geratzen den dataren hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Jakinarazpena egin gabe epe hori igarotzen denean, interesdunek eskaera ezetsita geratu dela ulertu ahal izango dute.

5.– Ebazpenen berri ematean jakinaraziko da emango zaion gauzazko dirulaguntzaren balorazio ekonomikoa, zein baldintzatan ematen den eta jarduera hori garatzeko beharrezkoa den beste edozein baldintza ere adieraziko da; baita, hala dagokionez, ez ematearen arrazoiak ere.

6.– Ebazpena SPRIren webgunean eta EHAAn argitaratuko da, denek izan dezaten emandako laguntzen berri.

7.– Onuradunari esleipenaren ebazpenaren berri ematean, de minimis laguntza bat dela jakinarazi behar zaio.



12. artikulua.– Dirulaguntzaren justifikazioa.

1.– Jarduera amaitu eta 90 egun naturaleko gehieneko epearen barnean, erakunde onuradunek proiektua burutu izana justifikatu beharko dute, SPRIren webguneko likidazio-eskaeraren inprimakiak betez.

2.– Likidazio-eskaera hori sinadura elektronikoaren bidez sinatu beharko du onuraduna ordezkatzeko ahalorde nahikoa duen pertsona batek.

3.– Likidazio-eskaerak honako hauek jaso behar ditu: erakunde edo pertsona onuradunaren identifikazio-datuak, legezko ordezkariaren identifikazio-datuak eta proiektuan parte hartu duten langileen kopurua, baita jasotako zerbitzuaren balorazio bat ere.

4.– Proiektuan parte hartu duten pertsonen kopurua laguntza emateko ebazpenean aurreikusitakoa baino txikiagoa izan dela egiaztatuz gero, dirulaguntza proportzionalki egokituko da, 7. artikuluan ezarritako irizpideen arabera. Kasu bakar batean ere ez da onartuko proiektuan parte hartu duten pertsonen kopurua laguntza emateko ebazpenean aurreikusitakoa baino handiagoa izatea.

5.– 2020ko abenduaren 30eko 36/2020 Errege Dekretuaren 61.3 artikuluaaren arabera, onuradunek egiaztatu beharko dute Estatuko Aurrekontu Orokorretan Europako funtsen kudeaketarako berariaz esleitutako kredituen kargura dauden aurretik esleitutako beste mailegu edo aurrerapenak ordaintzeko betebeharra egunean dutela. SPRIri dagokio ordaindu aurretik baldintza horiek betetzen direla egiaztatzea, eta, horretarako, erakunde onuradunaren ziurtagiria eskatuko du, beste moduren batean egiaztatu ezin bada.

2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Araudiaren 22.2.e) artikuluan eta Finantza Araudiaren 129. artikuluan (2018ko uztailaren 18ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018/1046 Araudia (EB, Euratom)) ezarritakoaren arabera, Suspertze eta Erresilientzia Planaren funtsak jasotzeko, Batzordeak, iruzurraren aurkako Europako bulegoak, Europako Kontu Auzitegiak, Europako Fiskaltzak eta autoritate nazional eskudunek beren kontrol-konpetentziak gauzatu ahal izateko eskubideak eta beharrezko sarbideak lagatzeko konpromisoa aurkeztu beharko da idatziz.

Ezarritako baldintzak eta oinarri hauetan araututako dirulaguntzak esleitzeko garaian aurreikusitako helburuak bete direla egiaztatzeko, Dirulaguntzen Erregimen Arautzailearen 20/2023 Legean eta bere garapen-araudian ezarritako prozedurak egin beharko dira, eta 2020ko abenduaren 30eko 36/2020 Errege Dekretuaren 63. artikuluan aurreikusitako neurri bereziak eta, hala badagokio, Europar Batasunaren araudi aplikagarria aplikatuko dira.

Erakunde onuradunek administrazio kontzesio-emailleak egindako egiaztapen-jarduerak, Kontu-hartzailatza Nagusiari dagozkion finantza-kontroleko jarduerak eta Kontu Auzitegiaren legerian aurreikusitakoak bete beharko dituzte, bai eta Europako Erkidegoetako Batzordeak eta Kontu Auzitegiak, Iruzurraren Aurkako Europako Bulegoak, Auditoretzako Bulego Nazionalak eta, hala badagokio, Europako Fiskaltzak egin ditzaketenak ere.

Nolanahi ere, oinarri hauetan araututako dirulaguntzei Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia planerako ezarritako jarraipena, kontrola eta ebaluazioa egingo zaizkie, eta barne-araudiak eta Europar Batasunekoak EBren Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoarako ezarritako informazioari eta publizitateari, kontrolari, egiaztapenari, jarraipenari, ebaluazioari eta gainerako betebeharrei buruz ezarritako betebeharrak bete beharko dituzte.



6.– Zehazki, auditoretza eta kontrola egiteko eta suspertze- eta erresilientzia-planaren esparruan erreformak eta inbertsio-proiektuak exekutatzeko neurriei dagokienez funtsen erabilerari buruzko datu alderagarriak izateko, Administrazio kontzesio-emaleek datuen kategoria harmonizatuak jasoko dituzte, 2021eko otsailaren 12ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2021/241 araudiaren 22.2 d) artikuluan zehaztutakoaren arabera.

7.– Erakunde onuradunek finantzaketarekin lotutako dokumentu justifikatzaileak eta gainerako dokumentazioa gorde beharko dute formatu elektronikoan bost urteko epean operaziotik zenbatzen hasita, edo hiru urteko epean dirulaguntzaren zenbatekoa 60.000 eurotik beherakoa bada, uztailaren 18ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018/1046 Araudiaren (EB, Euratom) 132. artikuluan aurreikusitako terminoetan («Araudi Finantzarioa»).

13. artikulua.– Laguntza- eta/edo likidazio-eskaerak zuzentzea.

1.– Laguntza- edota likidazio-eskaerak ez badaude behar bezala beteta puntu guztietan edo ez bada eskatutako dokumentazio osoa ekartzen, SPRIk 10 egun balioduneko epea emango dio erakundearen legezko ordezkariari akatsa zuzentzeko edo beharrezko agiriak helarazteko.

2.– Epe horretan akatsa zuzendu ez bada, laguntza-eskaeren kasuan, eskaera ukatuko da, helburu horretarako agindutako ebazpen baten bidez.

14. artikulua.– Laguntza ordaintzea.

Espezietan emandako laguntza (zerbitzua) emate-ebazpenarekin batera jarriko da eskuragarri.

15. artikulua.– Erakunde onuradunen betebeharrak.

1.– Onuradunen betebeharrak DEALen 14. eta 42. artikuluetan jasota daude; aplikagarria den heinean, Dirulaguntzen Lege Orokorraren 14. eta 46. artikuluetan jasota daude; zehazki eta xede mugatzailerik gabe, hauek:

a) Emandako laguntza onartzea. Harekin lotuta, dirulaguntza eman izanaren jakinarazpena jaso den dataren ondoren hamabost egun naturaleko epean, erakunde onuradunak ez badio SPRIren aurrean laguntzari espresuki uko egiten, onartuta geratu dela ulertuko da.

b) Laguntza zer xedetarako eman den, xede hori garatzera bideratzea. Dirulaguntzaren esleipena oinarritzen duen jarduera egitea edo egoera horretan egotea. SPRIren aurrean eskakizunak eta baldintzak betetzen direla justifikatzea, eta dirulaguntzak jasotzeko edo gozatu ahal izateko beharrezkoa den jarduera egitea.

c) SPRIk beharrezkotzat jotako dokumentazio osagarria eska dezakeela eta SPRIk izendatutako langileek, bere edozein instalaziotan, beharrezkotzat eta egokitza jotako egiaztapen guztiak egin ditzaketela onartzea. Horien guztien helburua izango da emandako laguntzaren xede den proiektua gauzatu dela eta eskatutako baldintzak bete direla egiaztatzea.

d) Faktura osoak gordetzea eta SPRIren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren esku jartzea bost urtez, gastu hautagarriak gauzatzen direnetik aurrera.

e) Hala badagokio, SPRIk egin beharreko egiaztapen-jarduketak baimentzea edo Eusko Jaurlaritzako Kontrol Ekonomikorako Bulegoak, Euskadiko Kontu Publikoen Auzitegiak edo estatuko zein erkidegoko beste edozein kontrol-organo eskudunek jasotako dirulaguntzen gainean egin beharreko beste edozein egiaztapen eta kontrol finantzario baimentzea, aurretik aipatutako zeregin horiek egiteko beharrezkoa den edozein informazio emanez.





f) SPRIri berehala jakinaraztea laguntzak edo dirulaguntzak edota beste edozein diru-sarrera edo baliabide eskatu edo jaso badute hemen araututako dirulaguntzen xede berbererako edo antzekorako beste Administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batzuetatik. Jakin eta berehala jakinarazi beharko da, eta, nolanahi ere, jasotako funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen edo justifikatzeko unean.

g) Laguntza emateko garaian kontuan hartutako edozein gorabehera aldatu dela jakinaraztea SPRIri.

h) Hizkerak eta irudiek ikuspegi intersektionala errespetatzea eta, batez ere, sexu- eta genero-ikuspegia kontuan hartzea, dirulaguntza jasoko duen jarduerak edo proiektuak eskatzen dituen dokumentu eta material guztietan. Hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista bermatzea, diruz lagundutako proiektua gauzatu bitartean sortzen diren dokumentu eta euskarri guztietan.

i) Herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzea eta, batez ere, euskara erabiltzea diruz lagundutako jarduketarekin lotutako argitalpenetan, iragarkietan eta publizitatean.

j) Onuraduna DEAlen 48.1 artikuluan aurreikusita dauden egoeretan baldin badago, deslokalizaziorik ez egitea.

k) Erakundearen izaera juridikoa dela-eta liburu kontulariek hala ezarritik gero, diligentzia-erregistroak eta behar bezala ikustatutako gainerako dokumentuak aurkeztea pertsona onuradunari dagokion merkataritzako legediak eta sektoreko legediak ezartzen duen terminoetan, baita dirulaguntzen oinarri arautzaileak eskatzen dituzten kontabilitateko egoerak eta erregistroak ere, egiaztatzeko eta kontrolatzeko jarduketak behar bezala egitea bermatzeko.

l) Jasotako funtsen aplikazioaren dokumentu justifikatzaileak gordetzea, dokumentu elektronikoak barne, egiaztatzeko eta kontrolatzeko jarduketak egin ahal izateko.

m) Garatutako jardueraren edo jarduketaren gaineko diruz lagundutako kostuaren soberakina edo jasotako funtsak itzultzea, DEAlen 36. artikuluan jasota dauden kasuetan.

2.- Onuradunek Europar Batasunaren Berreskurapen eta Erresilientzia Mekanismoaren finantzaketari dagokionez dituzten betebeharrak bereziak. Onuradunek, gainera, Europar Batasuneko Suspertze eta Erresilientzia mekanismoaren finantzaketari buruzko Europako eta estatuko betebeharrak bete beharko dituzte. Honetarako betebeharra izango dute:

a) «DNSH – Do No Significant Harm Printzipioa» (ingurumenari kalte nabarmenik ez eragiteko printzipioa) erabat betetzen dela bermatzea, bai eta etiketa klimatikoen (% 0) eta digitalen (% 100) baldintzak ere, Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planean, Espainiako suspertze- eta erresilientzia-planaren ebaluazioa onartzei buruzko Kontseiluaren Betearazpen Erabakian (Council Implementing Decision – CID), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduan eta irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 5. artikuluan, Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana eta hura garatzeko araudia kudeatzeko sistema taxutzen duenean, ezartzen denaren arabera, proiektuen diseinuaren eta gauzatzearen fase guztietan eta jarduketa bakoitzerako banaka. Nolanahi ere, erakunde horiek printzipio hori eta neurri zuzentzaileak betetzen direla egiaztatzeko mekanismoak aurreikusiko dituzte, horien ezarpena bermatzeko, eta dirulaguntzaren justifikazio-memorian jasoko dute hori bera.

b) Interes-gatazkak, iruzurra eta ustelkeria ez daudela bermatzea eta dirulaguntza ematen duen Administrazioak onartutako iruzurraren Aurkako Neurrien Plana baldintzarik eta erreserbarik gabe





onartzea. Izan ere, plan horren xedapenak oso-osorik bete beharko dira, Autonomia Erkidegoko, Estatuko eta Europako araudia erabat errespetatuz, iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitzeari, antzemateari eta zuzentzeari dagokionez, bai eta Europar Batasunaren finantza-interesak babesteari buruz bere erakundeek egiten dituzten erabakiekin bat etorri ere.

c) Onuradunak dirulaguntzak esleitzen dituen Administrazioari jakinarazi beharko dio helburu berdinerako beste dirulaguntzaren bat jasoz gero, baina ezingo da kostu beraren gainean finantzaketa bikoitzik ezarri, beste edozein Administrazio edo erakunde publiko nazional edo internazionaleratik eratorrita ere.

d) Europako Batzordeak, Iruzzurren Aurkako Bulegoak, Europako Kontu Auzitegiak eta Europako Fiskaltzak ezarritako kontrolak betetzea. Horretarako, organo horiei beren dirulaguntzari buruzko informazio guztirako sarbidea emango zaie, otsailaren 12ko Europako Parlamentuko eta Kontseiluaren (EB) 2021/241 Araudiaren 22.2.e) artikuluan ezarritako terminoetan.

e) Erakundeak dirulaguntza horren finantzaketa Europar Batasuneko MRRtik datorrela badakiela bermatzea, MRR ezartzeko 2021eko otsailaren 12ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2021/241 Arauditik eratorritako betebeharrak guztiak eta finantzaketa honentzat aplikagarriak diren beste arau komunitario eta nazionalak betetzeko. Baldintza hori erantzukizunpeko adierazpen bidez egiaztatuko da.

f) Batzordeari, Iruzzurren Aurkako Bulegoari, Kontu Auzitegiari eta, hala badagokio, Europako Fiskaltzari berariazko baimena ematea Araudi Finantzarioaren 1. ataleko 129. artikulua aitortzen dizkien eskubideak gauzatzeko eta suspertze- eta erresilientzia-planaren barruan dauden erreformei eta inbertsio-proiektuei buruzko neurri aplikagarrientzako amaierako hartzaile guztiei edo aplikazioan esku hartzen duten gainerako pertsona edo erakunde guztiei betebeharra ezartzea, eta Batzordeari, Iruzzurren Aurkako Bulegoari, Kontu Auzitegiari eta, hala badagokio, Europako Fiskaltzari berariazko baimena ematea Finantza Araudiaren 1. ataleko 129. artikulua aitortzen dituen eskubideak gauzatzeko eta funtsen amaierako hartzaile guztiei antzeko betebeharrak ezartzeko.

g) Jasotako funtsen aplikazioaren justifikazio-dokumentuak zaintzea eta kontserbatzea 5 urtetan zehar, dokumentu elektronikoak barne, egiaztapen- eta kontrol-jarduketak gauzatu ahala izateko, eta finantzaketaren zenbatekoa 60.000 eurokoa edo baxuagoa bada, hiru urtez, 2018ko uztailaren 18ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2018/1046 Zuzentarauaren (EB, Euratom) 132. artikuluan eta 2021eko otsailaren 12ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2021/241 araudiaren 22.2.f) artikuluan arabera.

h) Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren kudeaketa-sistema konfiguratzeko 2021eko irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 9. artikulua ezartzen dituen komunikazio-betebeharrak betetzea. Bereziki, inbertsioak garatzen dituzten jarduketan gainerako informazio- eta komunikazio-ekintzetan (kartel informatiboak, plakak, inprimatutako argitalpenak eta elektronikoak, ikus-entzunezko materiala, webguneak, iragarkiak eta prentsako agerraldiak, ziurtagiriak, etab.), logo hauek gehitu beharko dira: a) Europar Batasunaren ikurra; b) EBren ikurrarekin batera, «Europar Batasunak-NextGenerationEUK finantzatua» testua; c) 821/2014 Exekuzio Erregelamenduko II. eranskinean ezarritako arau grafikoak eta kolore normalizatuak izango dira kontuan.

i) Identifikazio-datuak datu-base batean sartzeko, 2021eko otsailaren 12ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2021/241 Araudiaren 22.2.d) artikuluan eta SEEPen kudeaketa-sistema konfiguratzeko 2021eko irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 8. artikuluan adierazitakoaren arabera.



j) Diruz lagundutako jarduketaren exekuzioaren fidagarritasunaren eta jarraipenaren arduradun izatea, jarduketa bakoitzaren lortze-maila ezagutu ahal izateko uneoro. Hirugarrengeok garatu beharreko jarduketaren kasuan, aurreikusitako jarduketak lortzeko ekarpena bermatzen duten mekanismoak ezartzea eta hirugarrenge horiek Suspertze Planaren adierazleen, mugarrien eta helburuen balioa zehazteko beharrezkoa izan daitekeen informazioa ematea, hala badagokio.

k) Inplikaturako Administrazio Publikoen artean datuak lagatzea onartzea, aplikagarria den Europako araudian aurreikusitakoa, Datu Pertsonalen Babeserako eta eskubide digitalen bermerako 2018ko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa eta 2021eko irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 8. artikulua osoa betetzeko. Agindu horrek funtsen amaierako hartzailea identifikatzea arautzen du eta bere informazioak eskuragarri egon beharko du 2021eko irailaren 29ko HFP/1031/2021 Aginduaren 10. artikulua ezartzen duen moduan. Hori guztia 2021eko otsailaren 12ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2021/241 Araudiaren 22.2.d) artikulua garatzeko.

16. artikulua.– Dirulaguntzak aldatzea eta epeak luzatzea.

1.– Ezingo da dirulaguntzaren helmuga edo xedea, eta esleitutako dirulaguntzaren helburua aldatu, eta ezingo dira jarduerak, jarduketak edo portaera moldatu, ezta esleipen-ebazpenean jasota dagoen dirulaguntzaren zenbatekoa igo ere. Halaber, ezingo dira aldatu dirulaguntza emateko onuradunak proposatutako edo eskaintako alderdiak.

Justifikatutako arrazoen bitartez, proiektua exekutatzeke epea luzatu ahal izango da; betiere, horrek ez badu eraginik Suspertze Plan honen proiektuarekin lotutako helburuetan eta hirugarrengeon eskubideei eragiten ez badie. Zehazki, programaren kudeatzaileak jarduerak gauzatzeko luzapen bat eman dezake, baldin eta erakunde eskatzaileek hala eskatu eta behar bezala justifikatzen badute. Luzapen hori justifikatutako atzerapenarekiko proportzionala izango da beti eta ezingo du inolaz ere proiektuak gauzatzeko hasierako epea 6 hilabete baino gehiagoan gainditu. 6 hilabetekoa da hasierako iraupena. Eta proiektuak exekutatzeke, ezin izango da 2026ko ekainaren 30a gainditu.

17.– Artikulua.– Ez-betetzeak.

1.– Erakunde onuradunek oinarri hauetan eta gainerako arau aplikagarrietan ezarritako baldintzaren bat eta, hala badagokio, esleipen-ebazpenean ezarritakoren bat betetzen ez badu, jasotako dirulaguntza eta bete ez izana hautematen den unean dagozkion atzerapen-interesak itzuli beharko ditu, aurrekontu orokorren 2003ko azaroaren 26ko 47/2003 Legearen 77. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Osorik edo partzialki itzuli beharko dira Dirulaguntzen Erregimen Arautzaileari buruzko 2023ko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 36. artikuluan eta bere garapen-araudian aurreikusitakoak.

2.– Itzultzeko prozedura Dirulaguntzen Erregimen Arautzaileari buruzko 2023ko abenduaren 21eko 20/2023 Legea eta bere garapen-araudira egokitu beharko da. SPRIri dagokio ez-betetzea egiaztatzeke espediente hasi, izapidetu eta ebaztea.

3.– DNSH printzipioa, etiketa klimatikoa edo oinarri hauetan jasotako baldintzak betetzen ez badira, onuradunak ordura arte jasotako kopuruak itzuli beharko ditu, Abenduaren 17ko 698/1991 dekretuan ezartzen den moduan, zeinaren bidez arautzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargura emandako dirulaguntzen berme eta ordainketen araubide orokorra, eta zeinetan finkatzen diren berorren kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileen baldintzak, erregimena eta betebeharrak.



4.– Jasotako kopuruak itzultzeko betebeharrak hori aplikagarria izango da baita ere mugarriak eta helburuak, egutegia, interes-gatazken adierazpena edo SEEP-NextGenerationEU araudiarekin lotutako beste edozein alderdi betetzen ez bada, 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorren 2022ko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen 7. artikuluko zazpigarren arauan eta Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana exekutatzeke neurriak onartzen dituen 2020ko abenduaren 30eko 36/2020 Legearen 37.4 artikuluan xedatutakoaren arabera. Halaber, kontuan hartuko da Suspertze eta Erresilientzia mekanismoa ezartzeko 2021eko otsailaren 12ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2021/241 Zuzentaraua.

5.– Aldi boluntario horretan itzulketarik egiten ez bada, premiamendu-bideari ekin ahal izango zaio, aplikagarria den legezko araudian xedatutakoaren arabera.

18. artikulua.– Iruzuraren, ustelkeriaren eta interes-gatazken arriskuaren prebentzioa.

1.– Balizko onuradunak hautatzeko prozesuetan edo baldintzak betetzen diren egiaztatzeke prozesuetan esku hartzen duten pertsonak adierazi beharko dute osorik eta inolako salbuespenik gabe ezagutu eta onartzen dituztela «Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana gauzatzeko eskatzen diren iruzurraren aurkako, interes-gatazkako, finantzaketa bikoitzeko eta estatu-laguntzetako eta ingurumen-kalte ez-nabarmeneko baldintzak betetzeko neurrien planaren» terminoak, 2022ko martxoaren 29ko Gobernu Kontseiluaren Hitzarmen bidez onartuak. Aurreko atalean xedatutakoari dagokionez, dirulaguntza esleitzeko organo eskudunaren arduradunak, dirulaguntzaren oinarriak eta/edo deialdia idazten dituen pertsonak eta eskaerak ebaluatzen dituzten adituek eta batzordeko kideek betebeharrak izango dute plan hori ezagutzeko eta onartzeko, baita jarduketa horietan Administrazioarekin lankidetzan aritzen diren eta aholkularitza eskaintzen duten erakunde pribatuetako pertsona fisikoek ere.

2.– 2023ko urtarrilaren 24ko HFP/55/2023 Aginduan xedatutakoaren arabera, bertan ezarritako prozedurak aplikatuko dira.

Gainera, agindu hori betetzeko, esleipenerako organo eskudunak eta eskaerak baloratzeko organo-elkargoetako kideek IX. eranskinean jasota dagoen interes-gatazka espezifikorik ez dagoela adierazteko agiria sinatu beharko dute eskaerak baloratzeko eta esleipena ebazteko fasean. Gainera, operazioaren arduradunak balizko interes-gatazka egiaztatzeke prozesua egin beharko du, HFP/55/2023 Aginduaren 4. artikuluan xedatutakoaren arabera. Prozesu horretan bandera beltz bat edo hainbat hautematen badira, HFP/55/2023 Aginduaren 7. artikuluan xedatutako prozedura jarraitu beharko da. Horretarako, eskatzaileei eskatu beharko diete titulartasun errealar buruzko informazioa emateko bost egun balioduneko epean. Epe horretan entregatzen ez badute, prozeduratik kanpo geratuko dira.

3.– Hurrengo atalen barruan dauden pertsonen Interes Gatazkarik Ez Dagoela Adierazten duen agiria beteko dute, VIII. eranskin gisa jasota dagoen ereduaren arabera, eta 2018ko uztailaren 18ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB, Euratom) 2018/1046 Zuzentaruaren 61.3 artikuluan («Audi Finantzarioa») eta Sektore Publikoko Erregimen Juridikoari buruzko 2015eko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan ezarritakoaren arabera.

4.– Interes-gatazkaren bat izan dezaketen autoritateek eta langileek ez dute esku hartuko kaltetutako prozeduretan. Interes-gatazkaren bat egon daitekeela pentsatzen denean, kaltetutako pertsonak idatziz emango dio egoeraren berri hierarkian bere gainetik dagoen pertsonari eta dagozkien Zerbitzu Juridikoek txosten bat egingo dute, dagokien erabakiaren berri emateko. HFP/55/2023 Aginduan kasu zehatzetarako ezarritako prozedura berezia alde batera utzi gabe.



5.– Kontrol Ekonomikorako Bulegoak interes-gatazkak prebenitzeko, hautemateko eta zuzentzeko neurri egokiei buruzko auditoretza espezifikoak egin ahal izango ditu bere kabuz edo IGAErekin lankidetzan (III. maila).

6.– Interes-gatazka bat hautemandakoan, kasu bakoitzean aplikagarriak diren legezko arauen eta araudien arabera neurriak hartuko dira. Nolanahi ere, interes-gatazkaren egoeraren berri eman beharko da, gardentasun-printzipioa betetzeko.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA.– Aplikatzekoa den araudia.

1.– Programa honi araudi hau aplikatuko zaio:

– Dirulaguntzen Erregimena Arazten duen 2023ko abenduaren 21eko 20/2023 Legea.

– Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta Lege hori garatzen duen Erregelamendua (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua) dirulaguntza arloko oinarritzko legeriari dagokion guztian.

– Abenduaren 17ko 698/1991 dekretua, zeinaren bidez arautzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargura emandako dirulaguntzen berme eta ordainketen araubide orokorra, eta zeinetan finkatzen diren berorren kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileen baldintzak, erregimena eta betebeharrak.

– Europako Batzordearen 2023ko abenduaren 13ko EB 2831/2023 Erregelamendua, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko 107. eta 108. artikulua de minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa.

– Suspertze eta Erresilientzia mekanismoa ezartzeko 2021eko otsailaren 12ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2021/241 Zuzentaraua.

– Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana exekutatzeke premiazko neurriak onartzeko 2020ko abenduaren 30eko 36/2020 errege lege-dekretua.

– Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren kudeaketa-sistema konfiguratzeke 2021eko irailaren 29ko HFP/1030/2021 Agindua.

– Estatuko, Erkidegoko eta Tokiko Sektore Publikoko Erakundeek Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren osagarrien neurrien aurrekontua eta kontabilitatea exekutatzen dela eta mugariak eta helburuak betetzen direla bermatzeko jarraitu beharreko prozedura eta eman beharreko informazioaren formatua zehazten dituen 2021eko irailaren 29ko HFP/1031/2021 agindua.

– 2024ko ekitaldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorra onartzeko 2023ko abenduaren 22ko 21/2023 legearen II. Tituluko V. Kapitulua.

– Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana exekutatzeke prozeduretan interes-gatazkak izateko arriskuaren azterketa sistematikoari buruzko 2023ko urtarrilaren 24ko HFP/55/2023 agindua.

2.– Halaber, aplikagarriak izango dira:

– Gobernu idazkaritzako eta Parlamentuaren Harremanetarako zuzendaritzaren 2022ko martxoaren 1eko 30/2022 ebazpenaren bidez (2022ko martxoaren 4ko 46. EHAA) argitaratutako Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planarekin lotutako jarduketan eta proiektuen aurrekontua eta



aurrekontu kontularia exekutatzeko, kudeatzeko eta jarraipena egiteko 2022ko otsailaren 8ko Gobernu Kontseiluaren hitzarmena.

– «2022ko martxoa Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana gauzatzeko eskatzen diren iruzurraren aurkako, interes-gatazkako, finantzaketa bikoitzeko eta estatu-laguntzetako eta ingurumen-kalte ez-nabarmeneko baldintzak betetzeko neurrien plana» onartzen duen 2022ko martxoaren 29ko Gobernu Kontseiluaren hitzarmena, Gobernu Idazkaritzaren eta Parlamentuaren Harremanen Zuzendariaren 2022ko apirilaren 6ko 40/2022 ebazpenaren bidez argitaratua (2022ko apirilaren 13ko 74. EHAA).

3.– Halaber, erakunde onuradunek derrigorrez bete beharko dituzte dirulaguntza ematen duen administrazioak eta gainerako autoritate nazional eta europar eskudunek ezar ditzaketan arauak, bai eta adierazitako finantzaketaren jatorria dela-eta, dirulaguntza horien onuradun izateagatik ezarritako betebeharrak guztiak ere.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.– Datuen babesa.

Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko Datuak Babesteko 2016/679 Erregelamendu Orokorrean eta datu pertsonalak babesteko gainerako araudi aplikagarrian ezarritakoarekin bat etorriz, jakinarazten da emandako datuak SPRIk tratatuko dituela eta haren Tratamendu Jardueren Erregistroan sartuko direla.

Tratamendu horren helburua, deialdiaren interes publikoan eta parte hartzeko eskabidean oinarritua, eskatutako laguntzaren espedientea kudeatzea da. Datu pertsonalak tratatzeko oinarri juridikoa da SPRIk duen interes publikoa, SPRI Enpresa Garapenerako Euskal Agentzia sortzeko estatutuetan ezarritako helburuak betetzeko.

Informazio hori gaian eskumena duen Administrazio Publikoari eta SPRI Taldeko enpresei laga ahal izango zaie.

Laguntza emateko espedientea izapidetzen den bitartean eta legez eska daitekeen epean gordeko dira datuak, legezko betebeharrak bete ahal izateko.

Interesdun guztiek eskubidea izango dute datuak zuzentzeko edo ezabatzeko, tratamendua mugatzeko, datuen eramangarritasunari aurka egiteko edo tratamendu automatizatuan soilik oinarritutako erabaki baten xede ez izateko, bai eta datuak babesteko araudi aplikagarrian aurreikusitako beste edozein eskubide ere, eskubide horiek aplikagarriak direnean, honako helbide elektroniko honetara idatziz bidalita: lopd@spri.eus. Era berean, interesdunak Datuak Babesteko gure ordezkariarekin harremanetan jarri ahal izango dira, idatzizko komunikazioaren bidez, helbide elektroniko honetan: dpd@spri.eus

Era berean, interesdun orok du edozein erreklamazio aurkezteko eskubidea dagokion kontrol-agintaritzan, eta SPRIren kasuan, Datuak Babesteko Euskal Autoritatea izango da: www.avpd.eus

SPRIk Datu Pertsonalen Babeserako esparruan egiten duenaren inguruko informazio gehigarriaren eta xehakatuaren berri izateko, jo <https://www.spri.eus/lege-oharra/> web-orrialdeko pribatutasun-politikara. SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziak oinarri hauei buruz hartzen dituen erabaki guztiak administratiboak dira eta, beraz, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa da jurisdikzio eskuduna.



SECRETARÍA DE ESTADO
DE DIGITALIZACIÓN
E INTELIGENCIA ARTIFICIAL

I. ERANSKINA

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN EREDU NORMALIZATUAREN EDUKIA

[Izen-abizenak] jaunak/andreak, [...] zenbakidun NANA indarrean duenak, [eskatzaillearen izena] ordezkatzeko du, [...] IFZ zenbakia duena eta egoitza soziala [helbidea; Euskal Autonomia Erkidegoan jarduerak ekonomikoa duen erakunde eskatzaillearen zentro bat adierazi behar da gutxienez] helbidean duena, eta adierazten du:

I.– Programa honen xede den laguntza jasotzeko indarrean dagoen araudiak ezartzen dituen baldintzak betetzen dituela; zehazki, honakoak:

– Aurreko hiru urteetan minimis laguntza gisa 300.000 euro ez dituela jaso.

– Eskatera honi dagokion atalean alderdi hauei buruzko informazioa jasota dagoela:

a) Aurreko hiru urtetan jasotako de minimis laguntzak, bertan adierazi beharko da laguntza hori noiz eman zen, zer erakundek eman zuen, zein programaren baitan eta laguntzaren zenbatekoa.

b) Proiektu hori bera gauzatzeko beste erakunde publiko zein pribatu batzuei eskatutako edo/eta haiek emandako dirulaguntzak, bertan adieraziz laguntza hori noiz eskatu zen, eta, hala badagokio, zein organismok eman zuen, zein programaren baitan eta laguntzaren zenbatekoa.

– Programaren oinarrien 5.2 artikuluan aurreikusitako egoeraren batean ez egotea, hau da:

a) Sektore publikoren batekoak edo sektore publikoaren parte izatea, aplikagarriak diren sailkapen instituzionalerako arauen arabera.

b) DEALen 13. artikuluan edo Dirulaguntzen Lege Orokorraren 13.2 artikuluan aurreikusten den egoeraren batean egotea, aplikagarria den heinean.

c) Europako Batzordeak laguntza bat legez kanpokoa dela edo barne-merkatuarekin bateraezina dela erabaki ondoren, laguntzak erreuperatzeko agindu baten menpe egotea.

d) LGTBIfobia egin, bultzatu edo sustatzea, bihurketa-terapiak sustatu edo egitea barne, trans pertsonen berdintasun erreal eta eragingarrirako eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko otsailaren 28ko 4/2023 Legearen arabera.

e) 30.000 eurotik gorako dirulaguntzen eta enpresen kasuan soilik, merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurka egiteko neurriak ezartzen dituen 2004ko abenduaren 29ko 3/2004 Legeak aurreikusten dituen ordainketa-epeak ez betetzea.

f) Beren 1.1 artikuluan arabera 2023/2831 Erregelamendutik kanpo utzitako sektoreen batean jarduerak egitea.

– Adierazpen honek barne hartzen duela eskatzaillearen konpromisoa enpresa ez deslokalizatzeko (DEALen 49. artikuluan jasotako baldintzen arabera), gehiegizko finantzaketarik ez egiteko (DEALen 9.4.h) artikuluan arabera) eta konpromisoa hartzen du SPRIk bultzatutako esparru-akordioaren esleipendun den erakunderik ez hautatzeko, baldin eta erakunde horrekin lotura badu, zuzenean edo zeharka, akzioen edo partaidetzen bidez.





II.– I. atalean egindako adierazpena betetzen dela ziurtatzen duen dokumentazioa duela eta Administrazioaren esku jarriko duela hark eskatutakoan; eta aurrez aipatutako betebeharrak betetzen jarraitzeko konpromisoa hartzen duela, haren eskubidearen aitortzari edo egikaritzeari dagokion denbora-tartean zehar.

III.– Badakiela Adierazpen honi laguntzen dion edo Adierazpenaren barruan agertzen den datu, adierazpen edo dokumenturen bat guztiz zuena ez bada, faltsua bada edo hutsak baditu, edo horiek Administrazio eskudunaren aurrean aurkezten ez baditu, ezingo duela eraginpeko eskubidea edo jarduera gauzatu, gertakari horien berri izaten den unetik bertatik; gainera, dagozkion erantzukizun penalak, zibilak edo administratiboak ezarriko zaizkio, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69. artikuluko 4. atalean ezarritakoaren arabera.

☐ Goian jasotako adierazpenen edukiaren onarpena.



II. ERANSKINA

SEEP-EN JARDUKETEN EXEKUZIOARI DAGOKIONEZ DATUAK LAGATZEKO ETA TRATATZEKO ADIERAZPENAREN EREDUA

_____ jaun/andreak, bere izenean edo _____ - (r)en ordezkaritza (kontratista/onuraduna), _____ IFKrekin (kontratastarena/onuradunarena), eta _____ zerga-helbidearekin, SEEPetik eratorritako baliabideekin finantzatutako dirulaguntzen onuraduna izanik, eta «_____» XX Osagarrian definitutako helburuak lortzeko beharrezko jarduketak garatzeko kontratista/azpikontratista/onuradun gisa, adierazten du aplikagarria zaion araudia ezagutzen duela, bereziki Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzeko 2021eko otsailaren 12ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2021/41 Zuzentarauaren 22. artikuluko atal hauek:

1.– d) hizkia 2. atalekoa da: «auditoretza eta kontrola egiteko eta funtsen erabilerari buruzko datu alderagarriak izateko, suspertze- eta erresilientzia-planaren esparruan egindako erreformak eta inbertsio-proiektuak exekutatzeke neurriei dagokienez, datu hauen kategoria harmonizatuak bildu eta sarbidea bermatu behar da:

a) funtsen amaierako hartzailearen izena;

b) kontratatzailearen eta azpi-kontratatzalearen izena, funtsen amaierako hartzailea Europar Batasuneko edo estatuko eskubidearen arabera ahalmen esleitzale bat denean, kontratazio publikoaren arloan;

c) Funtsen hartzailearen edo kontratistaren benetako titularren izen-abizenak eta jaiotze-datak, Europako parlamentuaren eta Kontseiluaren (26) (EB) 2015/849 Zuzentarauaren 6. puntuko 3. artikuluan definitzen denaren arabera;

d) Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan Erreformat eta Inbertsio Proiektuak exekutatzeke neurrien zerrenda, neurri horien finantzaketa publikoaren zenbateko osoarekin eta mekanismoaren esparruan eta batasunaren beste funts batzuetan ordaindutako funtsen zenbatekoa adieraziz».

2.– 3. atala: «Artikulu honetako d) hizkiko 2. atalean aipatutako datu pertsonalak soilik estatu kideek eta batzordeek tratatuko dituzte, aurrekontuaren kudeaketa onartzeko dagokion auditoretzaren eta 15. artikuluko, 2. eta 23. atalek eta 1. atalak adierazitako akordioak aplikatzearekin lotutako funtsak erabiltzearekin lotutako kontrol-prozeduren ondorioetarako eta iraun bitartean. Batzordearen kudeaketa onartzeko prozeduraren esparruan, TFUEren 319. artikuluko arabera, mekanismo horretarako txostenak aurkeztu beharko dira finantza-informazioari eta kontuak emateari buruz, Araudi Finantzarioaren 247. artikuluko eta, zehazki, urteko kudeaketa- eta errendimendu-txostenak adierazten duen moduan».

Azaldutako esparru juridikoaren arabera, adierazten du datuak aipatutako artikuluetan adierazitako helburuetarako soilik tratatu eta lagako dituela.

_____ (e)an 20__ (e)ko _____ (e)ko ____ (e)an.

Sinatuta:





III. ERANSKINA

SEEP-EN JARDUKETEN EXEKUZIOARI DAGOKIONEZ KONPROMISOA ADIERAZTEKO EREDUA

_____ jaun/andreak, bere izenean edo _____
(r)en ordezkaritzan (operadore ekonomikoa), _____ IFK zenbakiarekin (operadore ekonomikoarena).

_____ espediente-zenbakia duten dirulaguntzen lizitazio/deialdi prozedurari dagokionez

Lehenengoa.– Arau juridikoak, etikoak eta moralak betetzeko estandarrik zorrotzenak betetzeko konpromisoa hartzen duela, iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitzeko eta hautemateko beharrezko neurriak egokituz, eta, hala badagokio, hautemandako ez betetzeak dagozkien autoritateei jakinaraziz.

Bigarrena.– SEEPen edukiari dagokionez, konpromisoa hartzen duela ekonomia zirkularraren printzipioak errespetatzeko eta ingurumenean inpaktu negatibo esanguratsuak ekiditeko («DNSH», ingelesezko «do no significant harm» siglengatik) Plan horren barruan egindako jarduketak exekutatzeke garaian.

Hirugarrena.– Finantza bikoitzik ez egotea eta, hala badagokio, estatuko dirulaguntzen erregimenarekin bateraezintasun-arriskurik ez izatea.

_____ (e)an 20__ (e)ko _____ (e)ko ____ (e)an.

Sinatuta:



IV. ERANSKINA

INGURUMENARI KALTE ESANGURATSURIK EZ ERAGITEKO ERANTZUKIZUNPEKO
ADIERAZPENAREN EREDUA (DNSH PRINTZPIOA)

_____ jaun/andreak, bere izenean edo _____ -
(r)en ordezkartzan (operadore ekonomikoa), _____ IFK zenbakiarekin (operadore ekonomikoarena).

_____ espediente-zenbakia duten dirulaguntzen lizitazio/deialdi prozedurari dagokionez.

Lehenengoa.– Baldintza hauek betetzen dituela.

1.– Garatutako jarduerak kalte esanguratsurik ez eragitea ingurumeneko helburu hauetan, ingurumeneko jarduera ekonomiko jasangarrien sailkapen-sistema (edo «taxonomia») bat ezarritik inbertsio jasangarriak egitea sustatzeko esparru bat ezartzeari buruzko (EB) 2020/852 araudiaren 17. artikulua araberak:

Klima-aldaketa arintzea.

Klima-aldaketara egokitzea.

Baliabide hidrikoen eta itsasokoen erabilera jasangarria eta babesa.

Ekonomia zirkularra, hondakinen prebentzioa eta birziklapena barne.

Atmosferako, ureko edo lurzoruko kutsaduraren prebentzioa eta kontrola.

Biodibertsitatearen eta ekosistemak babestea eta suspertzea.

2.– Hala badagokio, jarduerak Osagarriaren Neurriarentzako eta Azpi-neurriarentzako finkatutako eta Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren islatutako ezaugarrietara eta baldintzetara egokitzen dira.

3.– Proiektuan garatzen diren jarduerak aplikagarria den indarrean dagoen ingurumen-araudia beteko dute.

4.– Garatzen diren jarduerak ez daude Planaren finantzaketatik salbuetsita, «kalte esanguratsurik ez eragiteko» printzipioaren aplikazioari buruzko gida teknikoaren arabera, Suspertze eta Erresilientzia mekanismoari buruzko Araudiari (2021/C58/01), Espainiako Suspertze eta Erresilientzia Planaren ebaluazioa onartzeari buruzko Kontseiluaren Exekuzio Erabakiaren proposamenari eta bere Eranskinari dagokionean.

5.– Garatzen diren jarduerak ez dute eragin zuzenik ingurumenean ezta zeharkako lehen mailako eraginik ere bizi-ziklo osoan. Eragin horiek dira amaitu ondoren, jarduera egin eta gero gauzatu daitezkeenak.

Bigarrena.– Adierazpen honetan ezarritako baldintzetako bat betetzen ez bada, badakiela eta onartzen duela jasotako kopuruak eta dagozkion atzerapen-interesak itzuli beharko dituela.

_____ (e)an 20 ____ (e)ko _____ (e)ko ____ (e)an.

Sinatuta:



SECRETARÍA DE ESTADO
DE DIGITALIZACIÓN
E INTELIGENCIA ARTIFICIAL

V. ERANSKINA:

IRUZURRAREN AURKAKO POLITIKA EZAGUTZEN DUELA ETA ATXIKI EGITEN DELA
ADIERAZTEKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN EREDUA

_____ jaun/andreak, bere izenean edo _____ -
ren ordezkartzan

ADIERAZTEN DU:

Lehenengoa.– Iruzurraren aurkako neurrien plan propio bat izatea eta Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzeko 2021eko otsailaren 12ko Europako parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2021/241 Araudian eta 2021eko irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduan xedatutakora egokitzen dituela Esku Hartze Orokorren eta Zerbitzu Juridikoen MRRren arloko gomendioak eta erakunde publikoetako kontrol-organo baliokidea, baita EBk iruzurraren aurkako arloan ezarritakora ere.

Hala badagokio, 2022ko martxoaren 29ko Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak onartutako «Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana gauzatzeko eskatzen diren iruzurraren aurkako, interes-gatazkako, finantzaketa bikoitzeko eta estatu-laguntzetako eta ingurumen-kalte ez-nabarmeneko baldintzak betetzeko neurrien plana».

Bigarrena.– Iruzurraren aurkako politikaren edukia eta horri dagokionez ezartzen diren betebeharrak ezagutzen dituela eta ahalik eta publizitaterik handiena emateko konpromisoa hartzen duela.

Hirugarrena.– Iruzurraren aurkako borrokaren arloan Eusko Jaurlaritzarekin hitz egiteko hizlari gisa _____ jaun/andrea ezartzen duela.

_____ (e)an 20__ (e)ko _____ (e)ko ____ (e)an.

Sinatuta:



VI. ERANSKINA

TITULARTASUN ERREALAREN ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN EREDUA

_____ jaun/andreak, _____ NAN zenbakiarekin, _____ IFK zenbakia eta _____ zerga-helbidea duen _____ erakundearen titularra/ordezkaria izanik, SEETik datozen baliabideen hartzailea da _____ izeneko (deialdiaren izena) jarduketaren esparruan eta

ADIERAZTEN DU:

Lehenengoa.– 2021eko irailaren 29ko HFP/1031/2021 Aginduaren 8. artikuluan xedatutakoa ezagutzen duela, funtsen azken hartzailearen identifikazioari buruzko informazioa eman behar izateko 2021eko otsailaren 12ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2021/241 araudiaren 22.d) artikulua eskakizuna betetzeko; hau da, funtsen hartzailearen izen-abizenak eta titular errealean jaiotze-data, Europako parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2015/849 Zuzentarauaren 6. puntuko 3. artikuluan titular erreala definitzen den moduan.

Bigarrena.– Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2015/849 Zuzentarauaren 6. puntuaren 3. artikuluan ezarritakoaren arabera, titular errealak hauek direla, hau da, azken buruan bezeroaren jabetza edo kontrola duen pertsona fisikoak edo transakzioa edo jarduera egin zaion pertsona fisikoak:

Titulartasun erreala				
Bazkidearen edo akziodunaren izen osoa	NAN/AIZ/Pasaportea	Nazionalitatea edo helbide soziala	Jaiotze-data	Parte-hartzea (%)

Hirugarrena.– Hala eskatuz gero, Eusko Jaurlaritzako erakunde exekututzaileari titular erreala edo errealak egiaztatzen dituen notariotza-akta entregatu behar diola jakitea, esleipenduna edo amaierako hartzailea merkataritza-sozietate bat baldin bada, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Zuzentaruaren eta 2021eko irailaren 29ko HFP/1031/2021 Aginduan xedatutakoaren arabera.

_____ (e)an 20__ (e)ko _____ (e)ko ____ (e)an.

Sinatuta:

Kargua:

2025eko apirilaren 8a, asteartea



VII. ERANSKINA

BIGARREN FINANTZAKETARIK EZ DAGOELA ADIERAZTEN DUEN ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN EREDUA

_____ jaun/andreak, _____ NAN zenbakiarekin, _____ IFK zenbakia eta _____ zerga-helbidea duen _____ erakundearen titularra/ordezkaria izanik, SEETik datozen baliabideen hartzailea da _____ izeneko (deialdiaren izena) jarduketaren esparruan eta bere erantzukizunpean adierazten du:

☐ Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzeko 2021eko otsailaren 12ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2021/241 zuzentarauan jasota ez dagoen Europar Batasuneko beste funtsik ez duela jaso eta etorkizunean ez dela aurkeztuko estatuko edo EBko aurrekontutik eratorritako beste edozein finantzaketa-funtsera.

Aurreko laukian baiezkoa markatuz gero soilik jarraitu; hau da, proiektuak xede horretarako finantzaketa jaso badu edo etorkizunean beste edozein funtsetatik finantzaketa jasotzea espero badu:

☐ Dirulaguntzen esleipena arautzen duten oinarrietan ezarritako mugetara egokitzeko konpromisoa hartzen duela.

☐ Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren kudeaketa-sistema konfiguratzeko 2021eko irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 7. artikulua xedatzen duenaren arabera, finantzaketa bikoitzik ez dagoela bermatzeko gastuen jarraipena egiteko konpromisoa hartzen duela.

☐ Mekanismoak eta kudeaketarako gaitasuna dituela proiektuaren finantzaketaren trazabilitatea bermatzeko.

☐ Dirulaguntzen Erregimena Arautzen duen 2023ko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 32.5 artikulua arabera, finantzaketa bikoitzik ez dagoela egiaztatu ahal izateko dagokion dokumentazio justifikatzailea aurkezteko konpromisoa hartzen duela.

☐ Datu hauek identifikatzen dira:

Dirulaguntza publikoak: Edozein administrazio edo erakunde publikoren xede berberarekin esleitutako edo eskatutako dirulaguntzak			
Administrazioa edo Erakunde publikoa	Xedea	Egoera	Guztira (€)
Eskatutakoa guztira: _____ €		Emandakoa guztira: _____ €	

_____ (e)an 20__ (e)ko _____ (e)ko ____ (e)an.

Sinatuta:

Kargua:



SECRETARÍA DE ESTADO
DE DIGITALIZACIÓN
E INTELIGENCIA ARTIFICIAL

VIII. ERANSKINA

INTERES GATAZKARIK EZ DAGOELA BERMATZEN DUEN ADIERAZPENA

(HFP/1030/2021 AGINDUA)

Azpi-proiektua: (Zenbakia eta izena).

Tresna juridikoa.

Espedientea (Zenbakia eta izena):

Onuradunaren izena, abizenak eta IFK:

Kargua:

Izen-abizenak:

IFZ:

Goian aipatutako prozeduraren inpartzialtasuna bermatze aldera, behean prozesuaren kudeaketan edo exekuzioan parte hartzen dutela sinatu dutenek honakoa adierazten dute:

Lehenengoa.– Informazioa dutela honakoei buruz.

1.– Europako Parlamentuko eta Kontseiluaren uztailaren 18ko 2018/1046 zuzentarauaren (EB, Euratom) (EBren araudi finantzarioa) «Interes-gatazkak» izeneko 61.3 artikulua ezartzen duela «interes-gatazka egongo dela funtzioen gauzatze inpartzial eta objektiboa arriskuan jartzen denean familiako arrazoiengatik, arrazoi afektiboengatik, kidetasun politikoagatik edo nazionalagatik, interes ekonomikoagatik edo interes pertsonaleko beste edozein arrazoi zuzen edo zeharkakogarik».

2.– Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 2017ko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen «Ustelkeriaren aurkako borroka eta interes-gatazken prebentzioa» izeneko 64. artikulua helburua dela konpetentziaren edozein lausotze ekiditea eta prozeduran gardentasuna bermatzea, eta hautagai eta lizitatzailerik guztien tratu-berdintasuna bermatzea.

3.– Sektore Publikoaren Erregimen Juridikoari buruzko 2015eko urriaren 1eko 40/2015 Legearen «Abstentzioa» izeneko 23. artikulua ezartzen duela prozeduran ez dutela esku hartu behar «hurrengo atalean adierazitako egoeraren batean dauden autoritateek eta Administrazio zerbitzuetako langileek»:

a) Jorratzen den gaian edo bere ebazpenak gai horretan eragina izan dezakeen beste edozeinetan interes pertsonala izatea; sozietate edo erakunde interesdunaren administratzailea izatea; edo interesdunen batekin auziak izatea.

b) Interesdunekin, erakunde edo sozietate interesdunetako administratzaileekin edota prozeduran esku hartzen duten aholkulariekin, legezko ordezkariekin edo agintariekin ezkondata egotea edo antzeko egoera batean egotea eta laugarren mailara arteko odol-ahaidetasuna edo bigarren mailara arteko ahaidetasuna izatea, edota bulego profesionala partekatzea edo aholkularitzarako, ordezkaritza edo aginterako bazkide izatea.

c) Aurreko atalean adierazitako norbaitekin laguntasun estua edo etsaitasuna izatea.





d) Prozedura horretan peritu edo lekuko gisa esku hartu izana.

e) Gaiari interes zuzena duen pertsona natural edo juridikoarekin zerbitzu-harremana izatea edo azken urteetan edozein motatako zerbitzu profesionala eskaini izana, edozein egoera edo lekutan.

Bigarrena.– Honakoa adierazten dut:

1.– EBren Finantza Araudiaren 61.3 artikuluan adierazitako interes-gatazkarik ez dutela eta prozesuari eragin diezaiokeen Sektore Publikoaren Erregimen Juridikoari buruzko 2015eko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23.2 artikuluan adierazitako abstentzio kasurik ez dagoela.

Hirugarrena.– Honakoa adierazten dut:

1.– Agertoki horretara eraman dezakeen edozein interes-gatazkaren edo abstentzio-arrazoren berri emango diola luzamendurik gabe kontratazio-organoari/hautaketa-organoari.

2.– Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 2007ko azaroaren 8ko 9/2007 Legearen 133. artikuluan ezarritako betebeharren esparruan jasota dauden prozedura horietan garatzen diren gaiak eta dokumentuak konfidentziasunez jorratuko dituela.

Laugarrena.– Honakoa adierazten dut:

1.– Interes-gatazkaren bat gezurra dela egiaztatzen bada, araudi aplikagarriak ezartzen dituen ondorio diziplinarioak/administratiboak/judizialak izango dituela badakidala.

(Eguna eta sinadura, izen osoa eta NANA)



IX. ERANSKINA

INTERES-GATAZKARIK EZ DAGOELA BERMATZEN DUEN ADIERAZPEN-EREDUA

(HFP/55/2023 AGINDUA)

Azpi-proiektua: (Zenbakia eta izena).

Tresna juridikoa.

Espedientea (Zenbakia eta izena):

Onuradunaren izena, abizenak eta IFK:

Kargua:

Izen-abizenak:

IFZ:

Goian aipatutako kontratazio/subentzio-prozeduraren inpartzialtasuna bermatze aldera, behean kudeaketaren prestaketan eta tramitazioan parte hartzen dutela sinatu dutenek honakoa adierazten dute:

Lehenengoa.

Honi buruzko informazioa izatea:

1.– Europako Parlamentuko eta Kontseiluaren uztailaren 18ko 2018/1046 Zuzentarauaren (EB, Euratom) (EBren araudi finantzarioa) «Interes-gatazkak» izeneko 61.3 artikulua ezartzen duela «interes-gatazka egongo dela funtzioen gauzatze inpartzial eta objektiboa arriskuan jartzen denean familiak arrazoiengatik, arrazoi afektiboengatik, kidetasun politikoagatik edo nazionalagatik, interes ekonomikoagatik edo interes pertsonaleko beste edozein arrazoi zuzen edo zeharkakogatik».

2.– 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikoan aplikatzen dituen Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 2017ko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen «Ustelkeriaren aurkako borroka eta interes-gatazken prebentzioa» izeneko 64. artikulua honela definitzen duela interes-gatazka: «kontratazio-organoaren zerbitzura dagoen eta, gainera, lizitazio-prozeduraren garapenean parte hartzen duen eta bere emaitzan eragin dezakeen langile batek interes finantzario, ekonomiko edo pertsonal zuzena edo zeharkakoa izatea eta lizitazio-prozeduraren testuinguruan duen bere inpartzialtasuna eta independentzia konprometitzea».

3.– 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko 2022ko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen ehun eta hamabigarren Xedapen Gehigarriaren 3. atalak honakoa ezartzen duela: «Interes-gatazkaren arriskuaren azterketa sistematiko eta automatizatua egitea dagokie kontratuak esleitzeko edo dirulaguntzak emateko deskribatutako prozeduretan banaka edo elkargo-organoen bidez parte hartzen duten eta erabakiak hartzen dituzten erakundeek, erakunde exekutatuzaileen eta instrumentalen zerbitzura dauden langile publikoei eta gainerako langileei».





4.– Aipatutako ehun eta hamabigarren xedapen gehigarriaren 4. atalak hau xedatzen duela:

– «Tresna informatikoaren bitartez aztertuko dira aurreko paragrafoan aipatutako pertsonen eta prozedura bakoitzeko parte-hartzaileen artean interes-gatazka sor dezaketen interes pertsonal edo ekonomikoa duten balizko harreman familiar edo sozietate-lotura zuzenak zein zeharkakoak».

– «Harremanak edo loturak identifikatzeko, tresnak, besteak beste, 2021eko otsailaren 12ko (EB) 241/2021 Zuzentarauaren 22.2.d).iii) artikuluan aipatzen diren pertsona juridikoen titulartasun errealari buruzko datuak jasoko ditu, Zerga Administrazioaren Estatuko Agentziaren datu-basean ageri direnak eta Notariotza Elkargoekin eta Erregistratzaileekin sinatutako hitzarmenen bidez lortutakoak».

Bigarrena.

Adierazpen hau sinatzeko unean eta bere esku dagoen informazioaren arabera, ez dagoela dirulaguntzen lizitazio/esleipen-prozedurari eragin diezaiokeen edozein interes-gatazkatan sartuta, ehun eta hamabigarren xedapen gehigarriaren laugarren atalean aurreikusitako terminoetan.

Hirugarrena.

Konpromisoa hartzen duela kontratazio-organoari/ebaluazio-batzordeari jakinarazteko, luzamendurik gabe, prozeduraren edozein unetan jakin eta gerta litekeen edozein interes-gatazkaren berri.

Laugarrena.

Interes-gatazkaren bat gezurra dela egiaztatzen bada, badakiela araudi aplikagarriak ezartzen dituen ondorio diziplinarioak/administratiboak/judizialak izango dituela.

(Eguna eta sinadura, izen osoa eta NANA)